

## DESKRIBAPENA

Gure enpresaren izena Glitter da. Enpresaren helburua eguneroko bizitzatik ihes egiteko esperientzia emozionante nahiz eta dibertigarriak eskainiko dituen zerbitzua eskaintzea da, aplikazio baten bidez. Glitterrek ekintza ezberdinak prestatuko ditu bezeroaren gustuetara moldatuak. Ekintza gehienak, aire librean izango dira eta kontsumitzaileen gastuak murrizten saiatuko gara. Horien artean, autobus zerbitzua eskainiko dugu enpresa ezberdinen bidez. Autobusak jende kopuruaren arabera kontratatuko ditugu eta material egokia eramango dugu, ekintzak modu seguruan egiteko. Horrez gain, egun osoan zehar antolatzaile batzuk egongo dira esperientzia hobeteko eskaintzeko eta koordinatuta egoteko.

Bestalde, prezio ezberdinak eskainiko ditugu eta jatetxe ezberdinekin arituko gara elkarlanean; horrela bertako jatetxe edo tabernei lagundu egingo diegu negozioa aurrera eramaten. Gainera, kultur ekintzetan parte hartzeko sarrerak ere salgai edukiko ditugu eta egun berezietan eskaintza bereziak eskainiko ditugu, horrelako eginkizun eta eskaintzak eginez espero dugu geroz eta bezero gehiago izango ditugula eta gure zerbitzuak indarra hartuko duela Euskal Herri mailan.